

Euskal Artzainen Desagertzea

Euskal artzainaren ofizioa kultura eta ekonomiaren zutabe izan da mendeetan zehar Euskal Herrian. Tradizio honek, sakonki txertatua dagoena euskal bizitza ruralean, identitatean funtsezko papera izan du. Hala ere, azken hamarkadetan, tradizio hau desagertzen joan da, nekazaritzaren eta abeltzaintzaren modernizazioaren ondorioz. Erreportaje honetan, euskal artzainen historia aztertuko dugu, gaur egungo garrantziarekin parekatuz.

Artzain Tradizioa

Gizakiak abereekin duen harremana Euskal Herrian oso antzinakoa da. Mendeetan zehar, artzain lana funtsezko elementua izan da Euskal mendietan eta haranetan. Pirinioetako, Gipuzkoako, Bizkaiko, Arabako eta Nafarroako landa eremuetako mendietan, urteen poderioz, Iberiar Penintsulako abeltzaintza tradizional garrantzitsuenetariko batek gertaera izan du.

Euskal artzainek zaintzen duten abere ezagunenetako bat latxa ardia da eta bere gazta famatua. Euskal artzainen alderdi berezietako bat artzaintza-txakurrekin duten harremana da.



Juan Luis Aramendiak 40 urte baino gehiago daramatza lanbidez eta sentimenduz artzaina izaten. Aitortu digu hasiera baten artzaina izatea erabaki zuela ez zegoelako beste askorik, baina piskanaka-piskanaka konturatu zen mendian animaliekin egotean, bere buruaren jabe izatean eta askatasunari esker, mundu hori maite duen guztiaz. Baita ere esan du atzera bueltatzeko aukera izango balitz behin eta berriz artzaina izatea erabakiko zuela, zeren bere

lanbidez identitatea egin baitu. Nolabait ere pena ematen dio bera garaitik hona dena aldatu dela pentsatzeak. Gaur egungo artzainei, aholku bezala, pazientziaz eta lanarekin dena lortuko dutela esaten die.

Mendeetan zehar garrantzi handia izan duen arren, artzaintza-lanbideak gainbehera handia izan du azken hamarkadetan. Nekazaritzaren eta abeltzaintzaren modernizazioak, hau da, industrializazioak eta landa-eremutik hirietara egindako

migrazioak mugarri bat sortu dute Euskal Herriko tradizio garrantzitsu honetan, eta, ondorioz, nire aitona bezalako asko munduan ez egotean, ohitura garrantzitsu hau arriskuan ikusiko da.

Gaur egun

Ofizio hau desagertu ez dadin, zenbait ekimen daude artzainaren lana berreskuratzeko eta babesteko. Hainbat gazte belaunaldi bueltatu dira landa eremura, natura eta artzain bizitzaz interesaturik.

Xabi Andueza, ezagunago Lope bezala, 32 urterekin, gazte horietako bat da. Artzaintza bere bizi modua izatea erabaki zuen betidanik animaliak maite izan dituelako, eta lehengo generazioek bezala lanbide hau askatasun handiko lanbidea kontsideratzen du. Bestalde, modernizazioa dela eta lan egiteko moduak guztiz aldatu direla eta orain dena errazagoa dela ere pentsatzen du. Aholku bezala, ikasteko eta lan gogor egiteko esaten du.



Euskal artzainek ez dute ahaztu behar ofizioaren errealitate zaila. Artzain gazteek oraindik ere lan horretan jarraitzea lortzen dute, baina askotan prekarietatean eta lan-baldintza gogorretan daudela ezin dugu ahaztu.

Lanak gaur egungo erronkei aurre egiteko beste bide batzuk ere baditu. Teknologiak eta berrikuntzek artzaintza-prozesuak errazteko eta hobetzeko aukera berriak eskaintzen dituzte. Aukera berri hauek tradizioa arriskuan jarri arren, lanbidean aldiz, laguntzen dute.

Hala ere, gaur egun, artzainaren lana ez da bere goreneko unera itzuli. Artzain lanaren desagertpenak galera bat ekarri dio Euskal Herriko kulturari eta tradizioari, baina, aldi berean, gaur egungo artzainek ez dituzte bakarrik abereak zaintzen, baizik eta euskal identitatea, kulturaren transmisioa eta natura errespetatzea ere beren lanaren atal garrantzitsua dute.

Azken finean, artzainaren ofizioak, desagertzeko arriskuan egon arren, gure kultura, naturaren zaintza eta tradizioen transmisioa bermatzeko garrantzi handia du. Ofizio hau berpizteko eta etorkizunean iraunarazteko beharrezkoa da, lehenengo eta behin, gizartearen onarpena eta balorazioa, eta bigarrenik, gazteen partaidetza eta konpromisoa. Euskal artzainaren ofizioa ez da soilik lan bat, baizik eta historia, kultura eta identitatearen isla bat, eta hori babestu eta zaindu behar dugu, etorkizunari begira.